

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Santi Agirre Bermeosolo

*Ea, Bizkaia
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



1937. urtean jaio zen Etxeaundi deituriko etxean. Hiru neba-arrebatatik gazteena izan zen eta aitak bezala, bere bizitza erdia itsasoan igaro duela kontatu zigun. Sei urterekin Eako eskolan hasi eta hiru urtez bertan egon zen. Gero, Bilboko Eskolapios ikastetxera eraman zuten barneko ikasle moduan. Bilbon, batxillergo ikasketak eta Portugaleten Nautikako karrera burutu zituen eta 18 urte zituela, agregatu bezala itsasoratu zen. Munduko leku askotako bizipen ugari, eta urteak igaro ahala, marinelen artean gero eta maila altuagoa lortu, eta azkenean kapitaina izatera nola heldu zen ere kontatu zigun. 49 urterekin, lagun batek, Madrileko atoiontzi ontzi-enpresa bateko inspektorea izateko aukeraren berri eman zion eta, sei hilabeteko proba egin ostean, beste 20 urtez bertan geratu zen jubilatu zen arte. Emaztea, berarekin elkarrizketan agertzen den [Ali Isasi](#) da eta umetatik ezagutzen zuten Ikar. Ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten. Oso ahots ona du eta koruko gizon bakarra izan da. Herriko abesti, koplak, esaera zahar eta kontu ugari abestu eta kontatu zizkigun barre artean.

Zintak

EAA-018

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-11-09
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

EAA-020

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-11-16
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

EAA-021

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-11-16
- **Iraupena:** 24 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Etxeaundin jaioa

- **Erref:** EAA-020/002
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:00:22. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Etxeaundi zeritzon etxean jaio zen hiru senideak. Etxearen izenaren jatorriaz hitz egiten du.</p>

2. Nautika ikasketak Bilbon

- **Erref:** EAA-020/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:01:43. **Bukatu:** 00:03:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Bederatzi urte bete zituenera bitartean egon zen Eako eskolan. Hara eta hona, eskola partikularrak hartzen, ibili zen ondoren. Azkenik, Bilboko Eskolapios ikastetxean batxilergoa egiteko barneko ikasle bezala sartu zen. Nautika eskolak hartu zituen bertan.</p>

3. "Bujero"? zer izango da ba...

- **Erref:** EAA-020/005
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:03:11. **Bukatu:** 00:05:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Eako eskolako irakasleak dakartza gogora. Oroitzapen gutxi dituen arren, anekdota batzuk gogoan ditu. Eugenio zeritzon lagunaren gaitzizenaren jatorria argitzen du.</p>

4. Ume asko zegoen Ean orduan

- **Erref:** EAA-020/006
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Neguan joaten ziren eskolara. Udan, hondartzara joaten zirela kontatzen du. Nahiz eta gaur egun ume gutxi dagoen Ean, garai hartan ugariagoak ziren. Mutilek, pilotan jolasten zuten.</p>

5. Arroka artean arrantzan

- **Erref:** EAA-020/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:

<p>Eako portuan bote gutxi zegoen garai hartan. Udaberrian, arroka artean ibiltzen ziren arrantzan mutikoak baina, salmentarako arraina inguruko herrietatik ekartzen zuten. Jateko eskasia egon den uneetan itsasoa laguntza handia izan dela kontatzen du.</p>

6. Garai bateko kontuak puztu egiten dira orokorrean

- **Erref:** EAA-020/008
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

<p>Antzinako kondairak neurritz kanpo kontatzen direla iruditzen zaio. Gauzak handitze edo hobetze aldera egiten dugu. Orokorrean, lehengo gauzak hobetsi egiten dira nahiz horrela ez izan.</p>

7. Eako kostaldeko txoko desberdinen izenak

- **Erref:** EAA-020/009
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:10:12. **Bukatu:** 00:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Toponimia. Inguruko txoko desberdinek betidanik izan dituzte izen horiek: "Lularri", "Saltarri", "Harribaltz"... Amamari gertatutako anekdota kontatzen du: itsaspekoa ("submarinoa" dio hiztunak) zer ote ziren galdetzera abadeari joan zitzaionekoa.</p>

8. Kanaberak bizkarrean hartuta arrantzara

- **Erref:** EAA-020/010
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:16:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harrialdeko arrantza

Laburpena:

<p>Inguruko arrantza-tokietara joaten ziren sarri. Kanaberak bizkarrean hartu eta, gauez ere, karburoarekin, joan ohi ziren nagusiak oinez.</p>

9. Inguruan hondarrik ez duten lanpernak, goxoenak

- **Erref:** EAA-020/011
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:39. **Bukatu:** 00:17:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Itsas fauna

Laburpena:

<p>Inguruan hondarra duten lanpernek ez omen dute gustu ona izaten. Arrazoia ez dakien arren, egia dela iruditzen zaio.</p>

10. Eako Gabonak

- **Erref:** EAA-020/013
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:19:11. **Bukatu:** 00:22:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabon giroko ohitura ezberdinak eta oroitzapenak dakartza gogora. 8-9 urte bitarteko mutilak irteten ziren kantuan. Ateratako diruak banatzera

Martina "Lapiko"-rengana joaten zirela gogoan du. Asko kantatzen zen Gabonetan.</p>

11. Gabonak: etxe barruko ospakizuna

- **Erref:** EAA-020/016
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:24:32. **Bukatu:** 00:26:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Jende asko biltzen zen beraien etxean Gabonetan. Etxe barruko ospakizunek indar handia zuten. Gerraostean bizi izan zituzten garai latzen, kanpora begira baino, etxe barruko ospakizunak egitera behartu zituztela iruditzen zaio nahiz eta Ea herri alaia izan den beti.</p>

12. Esnedunak etortzen ziren esnea saltzera

- **Erref:** EAA-020/019
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:29:41. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Esne asko edaten zuten lehen umeek. Esnedunak esnea saltzera etortzen zirela gogoan dauka. Abesti bat ere ba omen dago horren harira. Esnea erosten zutenei ere nola deitzen zitzairen aipatzen du.</p>

13. "Bolo-bolotan"

- **Erref:** EAA-020/023
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Bataioetan, aitabitxiek dirua bota ohi zuten haurrek har zezaten. Bere aita zenari ez zitzaion ohitura hura gustatzen, handikiena zela iruditzen zitzaion.</p>

14. "Nator aittuten emoten zueri..." Perikoren bandoa

- **Erref:** EAA-020/027
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:45:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Periko Eako aguazila izan zen. Bandoez arduratzen zen eta atabalarekin batetik bestera ibiltzen zela kontatzen du. Perikori gertatutako anekdota barregarriak dakartza gogora.</p>

15. Hildako baten agerraldiarekin apaizari ziria sartu

- **Erref:** EAA-020/029
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:47:06. **Bukatu:** 00:49:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Galdiztarrak Eako "abade-txikiari" ziria sartzen saiatu ziren eguneko anekdota barregarria kontatzen du.</p>

16. "Sombrero y botas" eskatu Ingalaterran

- **Erref:** EAA-020/032
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:52:59. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Jose Santiren aitaita kapitaina zen. Hari eta Eusebio Zabala makinistari Ingalaterran gertatutako istorioa kontatzen du: ingelesik jakin gabe, nola bapo gosaldtu.</p>

17. "Hormas de plisti-plasta"

- **Erref:** EAA-020/034
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:55:10. **Bukatu:** 00:56:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Bilboko itsasorako irteerako itsasargia Algortan zegoen kokatuta. Hango arduradunak itsasontziaren izena eta zeramaten kargari buruz galdetzen zien patroiei erdaraz. Eako patroiei batek zementua zeramala erdaraz esaten nola asmatu zuen kontatzen du.</p>

18. Esaera zaharrak

- **Erref:** EAA-020/037
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:01:02. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

<p>Amamari entzundako hainbat esaera zahar eta hauen esanahia.</p>

Agirre Bermeosolo, Jose Santi | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com